

OLAITZOLA IZENA

Por MANUEL DE LEKUONA

Problematxo batzuek gogorazten dituan izena, OLAITZOLA. Izkuntza-problema eta sozioloji-historiko-problema.

Lenengo; ba dirudi itz bakar ortan gauza bera bi aldiz esaten dala: tautolojia bat egiten dala, alegia. Gauza bera itz berean bi aldiz esatea. Salbota, erderaz «Val de Aran» esaten dan bezela. Gauza jakiña bait da, «Val de Aran» esaera, danok esaera tautolojikotzat daukagula; «Valle del Valle» esango balitz bezela.

Olaitzola izenean, olako tautolojiaren bat bai al dago? Olaitzola izenean, «ola» garbi-garbi bi aldiz esaten al da? bi aldiz, forma berean, eta esan-nai berean, semantika berean?... Ori da problema.

* * *

Erantzuna, garbi-garbi, ezezkoa da.

«Ola» itzak, lenengo lekuan gauza bat esan nai du; eta bigarrean, beste gauza bat. Lenengo «ola» artzai-ola da, txabola; eta bigarrean, industri-ola, burni-ola... Or ez dago inolazko tautolojiarik.

* * *

Bigarren problema: sozioloji-historiko-problema. OLAITZOLA.

Problema linguistikoaz gañera, beste problema soziolojiko-historiko bat ezkututzen da izen ortan: Erri baten bizitzako eboluzio bat gogorazten duan zerbait: artzantzarik industriarako aldakuntza aundi bat, alegia Erri baten historian.

Argi dezagun gauza piska bat.

* * *

Oyartzun'en, Ergoyen deritzan auzoan, Eguzkialde deritzan alderdi batean, iru etxeko irutote ikuskarri bat dage; iru baserri, iru-

rok izen berekoak: *Olaitz*: «Olaitz zaarre», «Olaitz berri» eta «Olaitz mari».

Iru Olaitz oiek, gaur, nekazari-baserriak dira; bañan beren jatorriz, artzai-bordak izandakoak dira. «Ola» izenez gañera, naikoa aditzera ematen du ori, etheen egoerak berak: irurok elkarren ondoan, larre gozoetan kokatuak; bakoitzak bere «bartzarraren» erdian duan etxea, noizpait artzai-sarobe izandakoaren egitura ta egoera duala. Ez daude andik oso urruti, «Sarobe» eta «Sarobe txiki» izeneko bi baserri. Dana, artzai-kutsu...

* * *

Bañan Oyartzun'en ez bait ditugu iru Olaita bakarrik; bai bait degu beste laugarren bat ere. Laugarren au «Olaitzola» da.

* * *

Irukotearen azpiko aldean, ibaia dihoa: «Oyartzun ibai». Eta ibai-ondoan, ain zuzen, gure «Olaitzola» dago. Olaitzola, konplejibilduma. Ibai aren alde batetik, Olaitzola etxea; eta ibaiaren beste aldetik, ola zarraren orma zaarrak; antziñako burni-olaren pareta zaarrak...

Olaitzola izenaren bukaerako «ola» ori, ordea, ez bait da artzaitxabola; industri-ola baizik; olaiztarren leengo artzai-ola, gero industri-ola biurtua: leen aipatu degun aldakuntza aundia, alegia, eboluzio aundia; «gabiola» bat, ibaiko ura probetxatuaz, ibai-bartzarrean sortua...

An bait daude gaur oraindik ere olaako urarkaren antapara eta presa; an, batez ere, pareta zaar ikaragarriak, leen izandako burni-industria bizi baten testigu. Eboluzio historiko baten testigu; pareta zaarrak-eta, eboluzio aundi baten testigu. OLAITZOLA.

* * *

— Burniola, noiztandik?

— Ez dakigu, noiz asi ziran olaiztarrak burni-langintzan. Nolanai dala, naiko aspaldi. Erdiaro, Edad Media, goi samarra.

Oyartzun'go Olaitzola baserriak berak, bere arkeolojiaz, ez digu gauza askorik esaten. Etxearen egiturak, ala ere, Leio bat erakus-

ten digu, konopeozko arkuduna, torre gotikoen garaikoa: Erdiaro, Edad Mediakoa.

* * *

Bañan, nolanai dala, Etnografiatik ba dikigu, industri-izaera baño leenago, olako lekuetan, artzantza izan zala orduko izaera eta biziera.

— Noiztandik, ordea, artzantza.

— Prehistoriatik, nik uste.


Guk dakiguna, au da: artzantzak Eguzkialde ontan denborarik asko izan zuala, asieran «ola» esaten zana, gerora «borda» esatera iristeko.

Oyartzun'en bertan, Olaitz'etatik urruti gabe or dago beste artzai-etxe bat, «Bordagarai» izena duana; eta Bordagarai orren zaarragoko kideko bezela, gure Errian bai bait degu, aita, «Olagarai» bat ere, oraindik zaarragoko izaera baten testigu. («Ola» itza, ari ontan, izan ere, «borda» baño askotaz ere zaarragoa da, etnografiaraz; askotaz ere zarragoa).

* * *


Nolanai dala, Olaitz-etxeak, Oyartzun'en, torre gotiko etxeak izan dirala, gauza argia da. Olaitz berri n bertan, «berri» izena dualarik, etxe-sarrerako ate arku-gotikodunak, eta etxearen saiets batean ageri duan, Santiyago'ren txirladun armarriak (1) ere zerbait esan nai dute, Arkeoloji Historiko gai ontan: zerbait jakin-garri, jakin nai duanarentzat. Bañan onenbestez naikoa izango degu

(1) Armari au ez da arkitzen Armari-katalogoetan aipatua.



OYARTZUN'EN

«Olaitz berri» baserriko
arma-arria.



OYARTZUN'EN

«Olaitz berri» baserrian
bi arri-dun arku gotikoa.